

Irudimena, hegán



Iban Barrenetxearen irudi honentzako ipuina asmatu beharko dute gáztetxoek.

Gáztetxoen artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, Ipuin eta Ilustrazio Lehiaketa antolatu du Elkar fundazioak, seigarren urtez. Apirilera arte, ipuinak ilustratzeko edo ilustrazioentzako ipuinak sortzeko aukera izango dute gáztetxoek.

Irudi bat hamaika istorioren sorburu izan daiteke, eta ipuin bat, hamaika ilustrazioen inspirazio iturri. Egilearen arabera, oso bestelako emaitzak lor daitezke ipuin edota ilustrazio beretik abiatuta. Proba egin nahi al duzue? Sartu, bada, www.elkar.com atarian, eta esku-

ratu 6. Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketarako Elkar fundazioak proposatzen dituen ipuina eta ilustrazioa.

Lehiaketak bi atal ditu: Alaine Agirreren ipuina ilustratu beharko dute gáztetxoek, eta helduek Iban Barrenetxearen ilustrazioa ipuin bilakatu behar dute.

Kategoria bakoitzean hiru maila

bereizi dituzte, hurren adinaren arabera. Esan bezala, Agirrek idatzitako *Letra txarra daukat, eta zer?* ipuin labur argitaratu gabea ilustratu beharko dute Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleek. Nagusia- goek, berriz, hots, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleetatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maila ikasten ari diren ikasleak arte, ipuin bat asmatu beharko dute Barrenetxearen ilustrazioarentzat.

Ipuinek orrialde bakarrekoak izan behar dute, eta ordenagailuz idatzirik aurkeztu behar dira guztiak. Orrialde bat baino gehiago

duten lanak ez dituztela onartuko ohartarazi dute antolatzaileek. Ipuinarekin batera, egilearen datuak zehaztu behar dira: izen-abizenak, jaiotze data, telefonoa eta helbidea.

Gáztetxoek euren kontura aurkez ditzakete lanak, edo, nahi izanez gero, ikastetxetik bertatik bidali daitezke. Kasu horretan, ikasleek datuez gáin, ikastetxearen izena zehaztu beharko da. Ikastetxeko gela bakoitzetik hiru lan aurkez daitezke soilik; beraz, gela ipuin gehiago asmatzen badira, irakasleak aukeraketa bat egin beharko dute, lanak bidali aurretik.

Agirreren ipuina ilustratzeko duten gáztetxoek, berriz, nahi duten marrazteko teknikak eta margo motak erabili ahal izango dituzte haien ilustrazioak sortzeko. A3 edo A4 formatuko orrietan marraztu behar da. Ipuinaren kasuan bezala, marrazkien atzean egilearen datuak zehaztea ezinbestekoa da.

Sari berezia

Apirilaren 11 baino lehen aurkeztu behar dira lan guztiak. Hiru bide daude lanak aurkezteko: edozein Elkar liburu dendatara eraman; lana eskaneatu eta www.elkar.com atarian jarri edota posta arruntez bidali honako helbide honetara: Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa; Euskal kulturgintza SA; Portuetxe 88; 20.018 Donostia.

Aurkeztutako lan guztien artean askotariko sariak banatuko dira: atal eta kategoria bakoitzeko, bina. Seigarren aldi honetan, gainera, bada sari berezi bat. Epaimahaiari gehien gustatzen zaizkion 30 ilustrazioak Irrien Lagunak klubaren webgunean jarriko dituzte, maiatzaren 12an. Maiatzaren 20ra arte eman ahal izango da botoa. Irrien Lagunak klubaren material sorta oparitzeko zaio marrazki irabazlearen egileari. Horrez gáin, Irrien Lagunak klubaren ikuskizun bat jasoko du opari hurrak ikasten duen ikastetxeak.

Maiatzaren 29an jakinaraziko dituzte irabazleen izenak.